

2019/07/11

Gehienez lortu daitekeen zuzeneko puntuazioa:	40
Gehienez lortu daitekeen puntuazioa:	30

A103. ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA

BIGARREN ARIKETA

Denbora, gehienez: 120 minutu.

Ez ireki galdera-orriak esan arte, eta irakur itzazu arretaz orri honetako jarraibideak.

- **Mugikorrak itzalita** eduki behar dira, eta mahaitik kanpo, baita erlojuak, jarduera-eskumuturrekoak eta antzekoak ere. Ur botilak, estutxeak eta antzekoak eskura eduki daitezke, baina ez mahaiaren gainean.
- Aretoan erlojurik ez badago, ahoz jakinaraziko da zenbat denbora falta den proba bukatzeko: 60, 30, 15, 10 eta 5 minutu geratzen direnean, eta azken minutuan.
- Mahaiaren gainean hauek besterik ezin izango dira eduki: galdera-orriak, identifikazio-orria, NANA eta boligrafoa (urdina edo beltza). Ezin da erabili kolorezko errotuladorerik; bai, ordea, TIPEX® edo antzekorik.
- Epaimahaiak **irakurtzeko moduko idazkera** erabili behar da ariketan.
- GAKOA duen **identifikazio-orria** eman badizute, jar itzazu datu hauek: NAN zenbakia, izena, abizenak eta probaren kodea/izena.
- **Idatz ezazu GAKOA** erabiltzen dituzun **erantzun-orrietan**. EZ ezazu idatzi izenik edo NAN zenbakirik orrian, ezta sinatu ere, EZ ZUZENTZEKO arrazoia baita.
- Identifikazio-orria probaren lehen minutuak igaro ondoren jasoko da.
- **Bertaratze-ziurtagiria** nahi baduzu, eska ezazu presentzia-kontrola egiten den unean.
- Erantzun labur eta zehatzak eman behar dira. Aldez aurretik zehaztuta daude zuzenketa-irizpideak.
- Galdera bakoitzaren gehieneko balorazioa enuntziatuan bertan adierazten da.
- Denbora agortu aurretik bukatzen baduzu, altxa eskua erantzun-orriak har diezazkizuten.
- Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.
- Ez ahaztu erantzun-orri guztietan adieraztea:
 - **LEP kodea (A103)**
 - Identifikazio-**gako**a
 - Orrian **zein kasu**ri erantzuten diozun (kasu bakoitza orri bereizian hasi behar da)
 - **Orri-zenbakia** / erabilitako orriak, **guztira**

Eskerrik asko zure laguntzagatik

1. KASUA

2016ko ekainaren 1ean, Gasteizko udalerriko herri bateko etxebizitza bat eraberritzeko obra-lizentzia eskuratzeko eskabidea aurkeztu zuen JIH-ek.

2016ko irailaren 10ean, udal bulego teknikoak txosten bat egin zuen, non adierazten baitzuen aurkeztutako eraberritze-proiektu teknikoa udal araudiarekin bat zetorrela. 2016ko irailaren 10ean bertan, eskatutako obra-lizentzia ematea erabaki zuen Hirigintzako zinegotzi ordezkariak, ordaindu beharreko zerga eta tasa ordainarazi ondoren.

2016ko irailaren 25ean, idazki bat aurkeztu zuen auzotar batek —HHIM— Udalean, zeinen bitartez salatzen baitzuen bere lursailetara sartzeko bideari eragiten zioten obrak egin zirela, eta eskatzen baitzuen obren arduradunari galda zekiola bidea aurreko egoeran utz zezala, obrak geldiaraz zitezela eta, behar izanez gero, obrak gauzatzeko emandako lizentzia berrikus zedila.

2016ko irailaren 26an, udal bulego teknikoak txosten bat egin zuen, obra bisitatu ondoren, eta adierazi zuen obrak ez zirela egokitzen lizentzia eskuratzeko aurkeztutako proiektu teknikora, eta nabarmen aldatu zutela hura. Obrak gelditu eta proiektuan aurreikusitako egoerara bihurtu behar zirela komunikatzea proposatu zen. Hirigintzako zinegotzi ordezkariaren ebazpenaren bitartez, etxebizitza eraberritzeko obrak bertan behera uzteko agindu zen, harik eta lizentziaren edukira egokitu arte, eta klandestinitzat jo ziren haren edukira egokitu gabe egindakoak. Orobat erabaki zen hirigintza-legezketasuna lehengoratzeko neurriak hartzeko dosierra abiaraztea.

2016ko urriaren 1ean, Arabako Foru Aldundiko Obra Publikoen Sailaren 50/2010 Foru-agindua jaso zuen Gasteizko Udalak, zeinen bitartez ukatu egiten baitzen JIH-k ... foru-errepideko ... p.k.-an dagoen familia bakarreko etxebizitza bat (hemen aztergai dugun etxebizitzaz ziharduen) eraberritzeko eskatutako esku-hartzea, Arabako lurralde historikoko Errepideen Foru-arauaren kontrakoa izaki.

Modu paraleloan, salatzaileak administrazioarekiko auzietarako errekurtsua aurkeztu zuen, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, obra lizentziaren kontra, eta onartu egin zen tramitera eta, prozedura buruturik, aurkeztutako errekurtsua osorik onesten zeneko epaia eman zen, eta erabat deuseztat jo zen lizentzia eman zeneko ebazpena. Era berean, burututako obrak legeztazintzat jo zituen, eta urratutako hirigintza-legezketasuna lehengoratzeko agindu, eta lizentzia erabat deusezaren babesean gauzatutako obrak eraisteko. Epaia interesdunei jakinarazi zitzaion, eta irmo bihurtu zen 2017ko martxoaren 1ean.

2017ko martxoaren 15ean, Udalak galdatu zion JIH-ri bi hilabeteko epean gauza zezala obra-lizentziaren babesean egindako obren eraisketa, eta, era berean, baimendutako obra-proiektua gaindituz egindako obrak eraits zitezela, eta egoera lehengoratu zezala. 2017ko maiatzaren 25ean bukatu zen eraisketa.

2018ko apirilaren 1ean, JIH-ek ondare-erantzukizuna galdatzeko eskabidea aurkeztu zion Udalari, lizentzia epaiaren bitartez baliogabetu eta obra eraitsi behar izana zela eta.

EBATZI BEHARREKOAK

- 1.1. HHIM auzotarra, legitimatuta al dago JIK-ek egindako obrak direla-eta salaketa aurkezteko? Arrazoitu erantzuna. (3 puntu)
- 1.2. Bideragarritzat jotzen duzu ondare-erantzukizuna galdatzeko eskabidea? Zein kalte uste duzu hartuko lituzkeela kalte-ordainak? Arrazoitu erantzuna. (3 puntu)
- 1.3. Epe barruan egin al zen ondare-erantzukizuna galdatzeko eskabidea? Zein da hasierako eguna (*dies a quo*), ondare-erantzukizuna galdatzeko eskabidea aurkezteko? Arrazoitu erantzuna. (4 puntu)

2. KASUA

Tasa berri bat ezarri nahi du Gasteizko Udalak, energia elektrikoa eta gasa garraiatzeko instalazioen jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik. Horretarako, berariazko ordenantza bat landuko da, elektrizitatea eta gasa banatzeko instalazioak zergapetuko dituzten tasak ezartzeko.

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariak eskatu du tasa ezartzeko onetsi behar den ordenantza fiskalaren inguruko hainbat konturen eta tasaren beraren inguruko informazioa eman dakiola.

EBATZI BEHARREKOAK

- 2.1. Adierazi ordenantza fiskala tramitatu eta onesteko jarraitu behar den prozedura. (3,33 puntu)
 - 2.2. Ordenantza fiskala indarrean jartzea. Indarraldia. Errekurtsoak. Baliogabetuz gero izango lituzkeen ondorioak. (3,33 puntu)
 - 2.3. Jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik —planteatutako kasuan, kasu— ordaindu beharreko tasen zenbatekoa izaera orokorrez zehaztea. Txosten edo azterlanak. Tasaren sortzapena. (3,33 puntu)
-

3. KASUA

Gasteizko Udalak lehiaketara atera nahi du zenbait lurzatitako lurzoruaren kalitatearen esplorazio-ikerketa egin eta arriskuen diagnostikoaren, ebaluazioaren eta balioespenaren txostena egiteko kontratua, 340.000 euroko zenbatekoarekin, BEZ bereiz (% 21), eta 4 hilabeteko gauzatze-epearekin. (Gehienez 7,5 puntu; planteatutako kontuetako bakoitzeko 1,5)

EBATZI BEHARREKOAK

3.1.- Adierazi tramitatu nahi den kontratuaren kalifikazio juridikoa, jarraitu beharreko prozedura arrunta(k) eta publizitate-betebeharrak. (2,00 puntu)

3.2.- Kontratuaren izaera juridikoa aintzat harturik, adierazi kontuan izan beharreko esleipen-irizpideen betebeharrak. (2,00 puntu)

3.3.- Kontratua gauzatzen hasi ondoren, epea luzatzeko eskatu du enpresa esleipendunak, argudiatuz beraren ustez berari egotzi ezin zaion atzerapen bat. Laburzki, azaldu posible den, zein tramite jarraitu behar diren eta ondorioak. (2,00 puntu)

3.4.- Kontratuaren administrazio-klausulen agirian ez da xehetasunik ematen azpikontratatzeari dagokionez. Nolanahi ere, kontratuaren parte bat azpikontratatu nahi du esleipendunak. Datua: bitartekoak jartzeari dagokionez, klausulen agirian galdatzen zen lurren kutsaduran espezializatutako teknikari bat —antzeko lanetan gutxienez 2 urteko esperientzia duena— atxikitzea kontratuari. Zein prozedura jarraitu behar da azpikontratazioa bideragarria izan dadin? (2,00 puntu)

3.5.- Kontratua gauzatzen hasi ondoren, klausulen agirian hasiera batean adierazitakoen mugakide diren lurzati batzuetara zabaldu nahi du kontratuaren xedea udal teknikari arduradunak. Aldakuntza hori kontratuaren hasierako prezioaren % 15era irits daitekeela zenbatetsi da. Azaldu, behar bezala justifikatuz, aldakuntza hori posible den ala ez. (2,00 puntu)

4. KASUA

2019ko ekainaren 14an egindako bilkuran, ikus-entzunezko proiektuak garatu eta ekoizteko 2019ko laguntza ekonomikoen udal programaren deialdi publikoaren berariazko oinarriak onetsi zituen populazio handiko udal bateko Tokiko Gobernu Batzarrak —probintziako buletin ofiziala, 76. zk., 2019ko ekainaren 28koa—, konkurrentzia-prozeduraren bitartez tramitatzeko, eta 1.100.000,00 euroko zuzkidurarekin. Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa da deialdia argitaratzen den egunetik.

I.- 2019ko uztailaren 5ean, Antonio Fernández Fernández jaunak —Angelita Films SL produkzio-etxearen izenean eta hura ordezkatzuz, haren kudeatzailea den aldetik— dirulaguntza-eskabidea aurkeztu du udal bulego teknikoetan —Olmedillo kalean— dagoen Udal Erregistro Nagusian.

Idazki horretan, honako hauek ageri dira: enpresa interesdunaren izena eta IFZ, haren legezko ordezkariaren nortasun-agiria eta helbidea, eskabidea zertzen deneko gertakariak, arrazoiak eta eskabidea, agiriaren lekua eta data, eta eskabidea aurkezten duen legezko ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia.

II.- Udalaren Sarrera Erregistroko arduradunak jakinarazi dio eskabide hori egiteko badela berariazko eredu bat, zeinetan jasotzen baita deialdiaren oinarrietan eskatzen den dokumentazioa, eta eskatzaileak erantzun dio ezen, Txoria gestoriak egin dionez, nahiago duela berea aurkeztu.

III.- 2019ko uztailaren 10ean, Angelita Films SL merkataritza-sozietateari zuzendutako errekerimendu bat jaso du eskatzaileak etxean, zeinen bitartez eskabidea zuzentzeko eskatzen baitzaio, legez galdatzen diren betebeharrak betetzen ez dituenez. 2019ko uztailaren 16an erantzun dio hark errekerimenduari, eta bidenabar eskatu aurrerantzean enpresa horrentzako jakinarazpen eta komunikazio guztiak bitarteko elektronikoa baliatuz egin daitezela, helbide elektronikoa honetan: www.angelitafilms.com

EBATZI BEHARREKOAK

4.1. Zenbat egun ditu Angelita Films SL-k dokumentazioa zuzentzeko? Egundunak ala naturalak dira? (1,00 puntu)

4.2. Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera, zein lekutan aurkeztu behar du Angelita Films SL-k zuzenketa hori? (2,00 puntu)

4.3. 2019ko irailaren 16an, ez Antonio jaunak, ez Angelita Films SL-k ez dute dirulaguntza-eskabidearen inguruko erabakiari buruzko inongo jakinarazpenik jaso. Ez Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzan, ez ikus-entzunezko proiektuak garatu eta ekoizteko 2019ko laguntza ekonomikoen deialdiaren berariazko oinarrietan, ez da ebatzeko gehieneko eperik ezartzen.

Zein izango da gehieneko epea, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera, eta zein egunetatik hasiko da zenbatzen epe hori? (2,00 puntu)

4.4. 2019ko irailaren 18an, Antonio jauna udal bulegoetara agertu delarik —bere ibilgailu partikularrarekin egindako trafikoaren arloko arau-hauste baten ondorioz jarritako isuna ordaintzera—, Erregistro Nagusiaren eta herritarrentzako arretaren ardura duen udal funtzionarioak, alde aurretik interesdunak eskatu gabe, Angelita Films SL merkataritza-sozietatearen dirulaguntza-eskabidea onartzen deneko udal ebatzenaren jakinarazpena eman dio, paperean. Zuzena al da egindako jakinarazpena? Zergatik? (2,00 puntu)

4.5. Baliozkoa al da jakinarazpena, lege-ondorioetarako? Zergatik? (2,00 puntu)

4.6. Jakinarazpena paperean egin delarik ere, obligazioa al dago Angelita Films SL-ri eman duen helbide elektronikora abisua bidaltzeko. (1,00 puntu)